



Herrera

San Luis eta San Juan eskutik helduta

Asteleneko ordu txikiak arte, jai giroa izango dugu Herrerako plazan. Auzoan San Luis jaiak ospatzen dira, baina herrertarrek ez dute San Juan ahazten. Izan ere, 23an, sua egin ohi dute.

Aurtengo jai egitarauari dagokionez, nabarmentzekoa da, besteak beste, Betagarri, Asgarth eta Lau Itzal taldeek ostiralean joko dutela Frontoian, aurtien hildako Antxon Ollokiegi auzoko gazte ezagu-

naren omenez. Larunbatean, San Luis egunean bertan, Euskal Giroak antolatutako esku pilota txapelketako finalak jokatu dira. Kadete mailan, Elejalde eta Fernandez altza-

tarrek Lizarra eta Iraola aňogatarren kontra jokatu dute Jubeniletan, Lizarra eta Cir cunjano aňogatarrek eta Ira zustabarrena eta Odriozola intxaurrendotarrak izango dira.

Egitaraua

Ostirala 20

20.00 Koadrilen harrera eta jokoen aurkezpena, buruhandekin eta dultzaineroekin. Mus txapelketako hirugarren eta laugarren posturako partida, Nautilus tabernan. Kalejira Grortu taldearekin, Gaiztarran

21.00 Gazteentzako herri afaria

23.15 Antxon Ollokiegi auzotarrari omenaldia. Ondoren, Betagarri, Asgarth eta 4 Itzal taldeen kontzertua

Larunbata 21

9.00 Diana dultzaineroekin.

10.00 San Luis Esku Pilota Txapelketako finalak, frontoian

11.00 Meza Herrerako elizako koruarekin

11.45 Erretiratuentzako hamai-ketakoa Herrera Kirol Elkartearen egoitzan, elizako koruarekin

12.00 Haur danborrada, Patxaranga La Nuestra txarangarekin

16.00 Gaztelupe koruaren kantaldia, Herrera Kirol Elkartearen egoitzan. Haurrentzako bolo, toka eta bote txapelketa

17.00 Haur jokoak

17.30 Helduen danborrada Patxaranga La Nuestra txarangarekin

18.00 Erretiratuentzako merienda Aterpe elkartean eta gaztetxoentzako merienda, plazan

19.30 Bertso saioa Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Xabier Legarreta "Arrano" eta Sustrai Colinarekin

20.00 Mus txapelketako finala, Erroak tabernan

21.00 Danborrarien eta koadrilen afaria

23.00 Dantzaldia Trikizio taldearekin. Ondoren, plater tiraketa txapelketa eta jokoak

Igandea 22

09.00 Perez de Lazarraga dultzaineriekin

10.00 IX. Euskal Azoka

Aurtien hildako Antxon Ollokiegi auzotarrari omenaldia, egingo diote ostiralean.



(14.00ak arte). Helduen bolo, toka eta bote txapelketak

10.30 XIII. Joakin Intxausti "Pipas" herri krosa (6km)

11.45 Kirolarientzat hamai-ketakoa, Herrera Kirol Elkartean

12.15 Dantza, Herri Ametsa ikastolarekin

14.00 Herri barrikotea. Xabier Karballo musikariak lagunduta

19.00 Estanga trikitixa eskolako trikitilariak Herreran ibiliko

dira. Buruhandiak Perez de Lazarraga dultzaineroekin

21.00 Reala eta Atletiko Madrilaren arteko partida pantaila erraldoi batean emango da

Astlehena 23

19.30 Parbxis txapelketako finala, Zumardi tabernan

22.00 San Juan sua

23.30 Azken suzeria eta kalejira Patxaranga La Nuestra txarangarekin

HARATEGIA
SARASOLA
URDIAITEGIA

*ondo pasa
jaietan*

Jose Elozegi hiribidea 130 · HERRERA
Tel.: 943 399126



Jai zoriontsuak opa
dizkizue!

Carrocerías Ussa

Txingurri pasealekua 15
HERRERA

Tel.: 943 39 16 13



Altza

Gora San Martzial!


Uztailaren 2a arte, Altzatarrak elkarteak antolatuta-ko San Martzial jaiak izango ditugu. Sagardo Eguna, danborrada, esku pilota partidak, Santa Ixabel eguna... Denetarik izango dugu. Zuk aukeratu.



Sagardo Eguna

Larunbat arratsaldean, VII. Sagardo Eguna egingo da Plaza Gorrian. Astigarragako Lizeaga, Gartziategi eta Petritegi, Hernaniko Otsua-enea eta Altzuetan, Erretereriako Egiluze eta Urrietako Eula sagardotegiekin parte hartuko dute Sagardo Egunean.

Idi-dema Santa Ixabel egunean



Asteazkenean, uztailak 2, Santa Ixabel egunean, idi-dema egingo dute Altzako probalekuan. Frantzesilaga Berriko Loinaz, Lasarte-Oriako Telleria, Zamalbideko Irarreta eta Asteasuko Olarreta baserrietako idi pare banak parte hartuko dute. 09.00etan idien pisaketa egingo da. Bi idi pare 12.00etan ariko dira eta beste biak, 18.00etan. Sari

edo garaikurren bat eskuratzeko, idi pareek, gutxienez, 30 plaza egin beharko dituzte 2.000 kiloko harriarekin.

Danborrada eta San Martzial ereserkia

Igande gauetz, San Martzial bezperan, danborrada mistoa aterako da kalerá. Aurten 30 bat lagun ibiliko dira auzoan danborra joaz. Nabarmentzekoa da danborjoleek iaz zendutako Imanol Elizasu auzotarra oimenduko dutela. Danborrada ondoren, udaletxean, Altzako bandera igo eta San Martzial marxa abestuko dute bertaratutakoek:

Kanta diezkiogun gustoz Martziali gozoak

Saria emango digu gure Jaungoikoak



Zure bost ogiekin, zure bi arraiekin

Bost milak izan zuten mantendu zerekin

Hargatik zure ondoren dabilta gizonak

Kanta diezkiogun gustoz Martziali gozoak

Saria emango digu gure Jaungoikoak (bis)

Bi pareta, dejadak...

Larunbat goizean, VII. Koadriren Esku Pilota Txapelketaren finalerdiak eta finala jokatu dira. Alde batetik, Tamayo eta Martinezek Garaban eta Razkinen kontra jokatu dute; Bestetik, Izagirre anaiek Arlegi eta Sañudo izango dituzte aurkari. Garaile ateratzen diren bi bikoteek finala jokatu

dute ondoren.

Bestalde, astelehenean Esku Pilotaren Egunaren ildotik, pilotari altzatar gazte asko ikusiko dugu frontoian. Goizean alebin eta kadete mallako partidak jokatu dituzte, eta arratsaldean gazteen eta afizionatuen txanda izango da.



arratole C.B. *Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*
Altzariak eta aroztegia

Larratxo 98 -A1 Lokala • Tel: 943 351714 • 20017 Altza

METALICAS OLETA
Aluminio aroztegia
Atariak • Lehiak • Terrazen estaldurak •
Bainuontziak • Plastikozko pertsiak jartzen ditugu

Jai zoriontsuak opa dizuegu
Kasares pasealekua 42 behe eskubia Tel: 943 352738
Oleta auzoa - Donostia.

IRISH REPUBLIC

Arriberri, 7 ALTZA (Donostia)
Kasares Kultur Etxe eta Altza
Polikiroldegaren ondoan
autobusez bazatoz, hobe!
Autobus lineak 13, H6, 24 eta 27